

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak LexNavarraren euskarazko bertsio bat argitaratu du bere webgunean

*Katalogo honek Foru Komunitateko arau politiko eta administratibo guztiak biltzen ditu, etengabe eguneratuta*

Martes, 24 de julio de 2012

Nafarroako Gobernuak LexNavarraren [euskarazko bertsio](#) bat argitaratu du bere webgunean ([www.navarra.es](http://www.navarra.es)). itaratu du bere webgunean.

Katalogo honek Foru Komunitateko arau politiko eta administratibo guztiak biltzen ditu, etengabe eguneratuta.

Orain argitaratutako bertsio honek euskarazko 1.778 dokumentu biltzen ditu, horietatik 197 foru-legeak eta 747 foru-dekretuak. Lehen fase batean Nafarroako Gobernuaren departamentuen araberako egitura batean kontsulta daitezke, baina gero dokumentu horiek kontzeptuen araberako aurkibide sistematiko baten bidez aurkitu ahal izango dira.

LexNavarraren euskarazko bertsioaren kontsulta doakoa eta libre da eta gaztelaniazkoan bezala sar daiteke bertan: [Nafarroako Gobernuaren webgune](#)aren bitartez, [Nafarroako Zuzenbidearen web-orri](#)aren bitartez eta [Nafarroako Aldizkari Ofizialaren orri](#)an dagoen estekaren bidez. Nafarroako Gobernuko Langileak beren intraneta erabiliz ere sar daitezke.

LexNavarraren euskarazko bertsioak ez du kanpoko kostu ekonomikorik ekarri, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuko langileek egin baitute oso-osorik. Era berean, zerbitzu hori bera arduratuko da euskarazko bertsioa mantentzeaz eta etengabe eguneratzeaz. Gorabeherak eta iradokizunak [lexnavarra@navarra.es](mailto:lexnavarra@navarra.es) helbide elektronikoaren bidez biderra daitezke.

LexNavarra 2007. urtetik aurrera daiteke Nafarroako Gobernuaren webgunean eta herritarrek kontsulta-erreminta gisa nahiz Foru Komunitateko administrazio publikoetako langileek lan-tresna moduan erabiltzen dute. Gogoan izan behar da LexNavarraren funtzioa dibulgaziozkoa dela. Bertan jasotako edukiak ez du inolaz ere izaera ofizialik izango; izan ere, izaera ofiziala Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren testuek bakarrik dute.